# B.4. AULESTI

### B.4.1. Hondakin uren araztegiaren eraikuntza

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

### B.4.1. Construcción de estación depuradora de aguas residuales

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia

*Intervention with results of no historical-archaeological interest.*

Obren gaineko jarraipen eta kontrol arkeologikoan zehar –2016ko apiriletik uztailera arte– lortutako emaitzek berretsi egiten dute 2014ko miaketa lanek eskainitako datuak, eta agerian uzten dute ez dagoela landareek edo sedimentu jalkinek ezkutaturik egon zitekeen finkamendu edo aztarna arkeologikorik. Agerian utzitako zutabe estratigrafiko xumeek eta arkeologikoki antzuek agerian uzten dute jarduera antropikoen erabateko absentzia, ez dago alde hau okupatuta edo populatuta egon zela iradokitzen duen ezer, ez kultura materialaren arrastorik ez eraikinen zantzurik. Eraikuntza proiektuak ez du inolako eraginik izan lehendik katalogatuta dauden fabrikan ez eta trazaduratik gertuen dauden ondare ondasunei begira finkatutako inguru babestuetan.

Los resultados obtenidos durante el seguimiento y control arqueológico de las obras, realizado de abril a julio de 2016, corroboran los datos aportados tras la prospección efectuada, en el año 2014, y denotan la ausencia de enclaves o evidencias arqueológicas que hubieran podido quedar solapadas por la vegetación o por depósitos sedimentarios. Las columnas estratigráficas exhumadas, sencillas y arqueológicamente estériles, ponen de manifiesto una ausencia total de actividad antrópica, evidencias de hábitat u ocupación del territorio, así como de restos de cultura material o evidencias constructivas. El proyecto constructivo no ha supuesto ningún tipo de afección ni sobre la fábrica ni sobre los entornos de protección establecidos para los bienes patrimoniales más próximos al trazado, catalogados con anterioridad.

*M. Lerín Sanz*

# B.5. BARRIKA

### B.5.1. Aranbaltza. Paleolitoko ageriko aztarnategia

IV. kanpaina
Zuzendaritza: Joseba Rios-Garaizar
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

### B.5.1. Aranbaltza. Yacimiento paleolítico al aire libre

IV Campaña
Dirección: Joseba Rios-Garaizar
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

*The fourth season of archaeological excavations in the open-air Aranbaltza site enabled the detailed documentation of the Châtelperronian occupations in Aranbaltza II. Preparations were also made for the excavation of levels containing conserved organic materials in 2017, in Sector III.*

Aranbaltzako aztarnategia induskatzeko 2016ko kanpainan batik bat Aranbaltza II eta Aranbaltza III sektoreetan jardun dugu.

Aranbaltza II sektorean aurrera jarraitu dugu 2014an irekitako eta 2015ean induskatutako azaleran sakontzen US4a-n gutxi gorabehera 7,5 m² hartu arte. Bertan 10 cm lodi izatera iristen ez zen unitate arkeologiko bat induskatu ahal izan genuen, eta milatik gora suharri zati, ikatz hondakin, hareharri eta basalto zati identifikatu genituen; elementu horiek material dentsitate handiko metaketak sortzen zituzten puntu jakin batzuetan. Harrizko tresnen multzo honek ageriko lo-

En la campaña de excavación de 2016 del yacimiento de Aranbaltza hemos actuado fundamentalmente en Aranbaltza II y en Aranbaltza III.

En Aranbaltza II se ha continuado con la superficie abierta en 2014 y excavada también en 2015 hasta alcanzar en unos 7,5 m² la US4a, en la que pudimos excavar una unidad arqueológica de menos de 10 cm de espesor tapizada de más de un millar de restos de sílex, carbones y fragmentos de arenisca y basalto, formando en ocasiones concentraciones con una gran densidad de materiales. Este conjunto de industria lítica tiene claras vinculaciones

tura teknotipologikoak ditu I. Libanok 2005. urtean kanalizazio erretenean berreskuratu zituen materialekin (Rios-Garaizar et al. 2012). Unitate arkeologiko horixe bera induskatu genuen 2013an, 2016an induskatutako sektorearen ondoan eta 2014an kanalizazio erretenaren beste aldean induskatutako antzeko testuinguru batean. Chatelperrondar teknokonplexuari berezkoak zaizkion bereizgarriak ageri dituzte material horiek, halakoxeak dira noranzko biko nukleo ezpalduak eta Chatelperroneko gezi muturrak. Material horiei leku egiten zien jalkin hareatsuak eraturiko geruzaren aurreneko zentimetroetatik bi hondar lagin jaso genituen OSL bidez datatu ahal izateko. Bestalde, han-hemen isolatutako ikatz lagin batzuk bildu genituen, baina horiek ez dute zertan okupazio honekin erlazionatuta egon, ez baitugu errekuntza egiturarik dokumentatu eta urri baitira harrizko aztarna erreak. Bestalde, jalkin laginak hartu genituen geroago polenen analisia egin ahal izateko. Unitate arkeologiko honen azpian erabat antzua da jalkin edo sedimentu hareatsuak osatutako depositua.

Unitate arkeologiko horren luze-zabalera egiaztatzeko metro karratuko zundaketa bat egin genuen Aranbaltza II sektorearen eta chatelperrondar kulturako aztarnatik bat ere eskaini ez zuen 2015ean induskatutako 8. erretenaren artean. Zundaketa horretan pakete arkeologiko nahasi eta lodi bat induskatu genuen, pakete hori zuzenean chatelperrondar unitatean oinean ageri den jalkin hareatsuaren gainean pausatuta zegoen, eta beraz, unitatea puntu honetaraino iristen ez dela egiaztatu genuen. Pakete nahasiaren eta harearen arteko ukipen garbiak iradokitzen du unitatea puntu honetaraino iritsiz gero haiek higatuta gertatuko zirela, edo harrobiak edo kanalizaziorako erretenak berak induskatuta gertatuko zirela.

Aranbaltza III sektorean azalera handiago batean jardun genuen 2015eko zundaketan antzemandako

tecnotipológicas con los materiales recuperados en la zanja de canalización en 2005 por I. Libano (Rios-Garaizar et al. 2012). Esta unidad arqueológica es la misma que excavamos en 2013 en la zona de excavación adyacente a ésta de 2016, y en 2014 en un contexto semejante al otro lado de la zanja de canalización. Estos materiales presentan características propias del tecnocomplejo chatelperroniense, como son los núcleos laminares bidireccionales o las puntas de Chatelperrón. Se obtuvieron dos muestras de arena de los primeros centímetros del sedimento arenoso en el que están insertos estos materiales, para su datación por OSL. Asimismo se obtuvieron algunas muestras de carbones aislados que no tienen que estar necesariamente relacionadas con esta ocupación, en la que no se han documentado estructuras de combustión y son escasos los restos líticos quemados. También se tomaron muestras de sedimento para su posterior análisis polínico. Por debajo de esta unidad arqueológica el depósito sedimentario arenoso es totalmente estéril.

Para comprobar la extensión de esta unidad arqueológica se realizó un sondeo de 1m$^2$ entre Aranbaltza II y la zanja 8 excavada en 2015, donde no encontramos ninguna evidencia correspondiente con el Chatelperroniense. En este sondeo se excavó un espeso paquete arqueológico revuelto depositado directamente sobre el sedimento arenoso que aparece en la base de la unidad chatelperroniense, constatando que esta unidad no tiene continuidad hasta este punto. El contacto neto entre el paquete revuelto y la arena sugiere que de haberse extendido hasta aquí, éstas fueron erosionadas, excavadas por la cantera o por la propia zanja de canalización.

En Aranbaltza III se actuó en una superficie más amplia, con el objetivo de poder alcanzar los nive-




Unitatearen nukleo ezpalduak eta ijelkitxoak.

Núcleos laminares y de laminillas de la unidad.

mailak, materia organikoa kontserbatzen duten mailak, iritsi ahal izateko xedearekin. Guztira 35 m² altxa genituen, eta erreten bat (metro bete zabal) egin genuen indusketa gune berri hau 2014-2015eko zundaketarekin elkartzeko. Buztinezko geruza nahasiak, kolorez marroi ilunak, osatzen du jalkin depositaturen goiko zatia. Hego-ekialdeko izkinan mea zepazko pakete baten gainean pausatzen da jalkin hori. Zepazko paketea zuzenean dago kolore laranjako eta bel-tzeko sedimentu hareatsuek eraturiko geruzen gainean (US4c eta US5), eta geruza horiek ia bertikalean daude egokituta. Hareazko geruza antzu horien azpian oinean izan ezik gainerako zatietan desitxuratuta dagoen buztinezko geruza lodi bat erregistratzen da (US6). Unitate buztintsu horren azpian landare eta harrizko material batzuk biltzen dituzten maila harea-tsuak azaltzen hasten dira. Unitate hori itxura batean bat dator 2015ean Aranbaltza III sektorean egindako zundaketaren oineko mailekin. Behin unitate horretara iritsi ginenean bertan behera utzi genituen indusketa lanak; 2017an sakonduko dugu maila horietan. Sekzio guztiak zurkaiztu genituen behera etor ez zitezen. Aztertutako eremuaren izkinetako batean material metaketa esanguratsu bat erregistratu genuen maila nahasian, horien artean ugari ziren harrizko hondakinak, tenperaturak eraldatutako hareharriak eta metalezko hondakin batzuk, azken horiek segur asko aro modernokoak. Azkenik, 2015eko zundaketa gunea 2016ko kanpainan irekitako sektore berriarekin lotzeko xedearekin irekitako erretenean hego-mendebalderantz makurtzen den maila hareatsu baten zati bat induskatu ahal izan genuen; Erdi Paleolitoko materialak ditu, eta itxura batean 2014an eta 2015ean induskatutako erretenekin (Moustier kulturako materialak zeuzkaten) lotu daiteke maila hori. Harrobiko kanalizaziorako erretenaren azpian dago maila hori eta erretenaren beste aldean ere induskatu ahal izan da. Beraz, Moustier aldiko unitate arkeologiko zabal bat dago alde honetan, eta Aranbaltza I sektorean induskatuaren antzekoa dela esan behar dugu.

les con preservación de materia orgánica detectados en el sondeo de 2015. Se abrieron un total de 35 m², y una zanja de 1 m de ancho para unir esta nueva zona de excavación con el sondeo de 2014-2015. La parte alta del depósito sedimentario está compuesta por una primera capa arcillosa revuelta, de color marrón oscuro. En la esquina SE este sedimento está depositado encima de un echadizo de escoria mineral. Esta escoria se deposita directamente sobre estratos de sedimento arenoso de color naranja y negro (US4c y US5), que aparecen dispuestos en posición casi vertical. Bajo estos niveles de arena, estériles, aparece un potente paquete de arcillas que está deformado excepto en la base (US6). Inmediatamente debajo de esta unidad arcillosa comienzan los niveles arenosos con materia vegetal y algunos materiales líticos. Esta unidad parece corresponderse con los niveles de base del sondeo realizado en Aranbaltza III en 2015. Una vez alcanzada esta unidad se detuvo la excavación en espera de intervenir en estos niveles en 2017. Todas las secciones fueron entibadas para evitar su derrumbe. En una de las esquinas del área intervenida apareció una concentración significativa de material en el nivel revuelto, incluyendo abundantes restos líticos, areniscas termoalteradas, y algunos restos metálicos probablemente modernos. Por último al unir mediante una trinchera la zona del sondeo de 2015 con el nuevo sector abierto pudimos excavar parte de un nivel arenoso que buza hacia el SW con materiales del Paleolítico Medio que parece corresponderse con los canales con materiales musterienses excavados en 2014 y 2015. Este nivel pasa por debajo de la zanja de canalización de la cantera y ha podido ser excavado también al otro lado de la misma, lo cual revela la existencia de una extensa unidad arqueológica musteriense, semejante a la excavada en Aranbaltza I.

*J. Rios-Garaizar; I. Ortega Cordellat; A. San Emeterio Gómez; I. Libano Silvente; E. Iriarte Aviles; D. Garate Maidagan*

# B.6. BERMEO

## B.6.1. Tribisburuko nekropoli erromatarra

Zuzendaritza: Juan José Cepeda Ocampo
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

## B.6.1. Necrópolis romana de Tribisburu

Dirección: Juan José Cepeda Ocampo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

*Demarcation of the funerary precincts located at the northern end of the excavation area, belonging to an incineration necropolis from the High Imperial Era of the Roman Empire. One finding worth mentioning was the mouth of a common ceramic jug inside structure 4, arranged as a funerary deposit.*

Kanpaina honetan zehar orain arte aztertutako eremuaren mugak oinplanoan gainditzen zituzten bi hileta barrutiak mugatzeko indusketa lanak egin ditugu Tribisburuko nekropolian. 4 eta 8 zenbakiekin adierazi ditugu bi hilobi horiek. Horrenbestez, landare geruzatik abiarazitako indusketak aukera eman zigun, hasteko, 1990. urteetan zehar aztarnategi honen in-

La excavación de la necrópolis de Tribisburu se ha centrado durante esta campaña en la delimitación de los dos únicos recintos funerarios cuya planta desbordaba los límites del área en la que se ha venido trabajando hasta ahora, señalados con los números 4 y 8. La excavación, acometida por tanto desde el manto vegetal, ha permitido comprobar en primer lugar los